



GAIXOTASUN LARRIEN AURKAKO IKERKETA

Berrikuntzako eta Internalizazioko Zuzendaritza



ZERGATIK?

Gaixotasun larrien kontrako borroka giza baliabideetan eta baliabide teknologikoetan etengabe inbertitzea eskatzen du. Gipuzkoak puntako ikerketa zentro eta talde batzuk ditu, arlo horretan lanean ari direnak. Horientzat, ekipamenduaren zati bat berritzea edo langile berriak ekarri ahal izatea laguntza handia izango da ikerketan aurrera egiteko.

ZEIN?

Gaur egun gaixotasun larrien arloan ikertzen ari diren zentroetara bideratuko dira funtsak. Hala ere, bistakoa den bezala, mota horretako gaixotasunen eraginpean dauden herritar guztiek jasoko dute aurrerapenen onura.



ZERTARAKO?

Ikerketa taldeei laguntzeko, langile berriak ekarrita, betiere Gipuzkoako ikerketa taldeen ekipamendu teknologikoa hobetzeko, gaixotasun larrien tratamenduan aurrerapenak lortzeko prozesua bizkortze aldera.

NOLA?

Proiektu honen bidez. Deialdi ireki bat egingo da, gaixotasun larrien aurkako ikerketa taldeek beren lan proiektuak eta beharrak aurkez ditzaten; era horretan, laguntza baliagarria izango da lantzen ari diren proiektuak azkartzeko edo ikerketa ildo berriak irekitzeko.




NON?

Gaur egun gaixotasun larriak ikertzeko Gipuzkoan lanean ari diren ikerketa zentro eta taldeak.

NOIZ?

2020ko ekitaldia



200.000€